

Alberto Saavedra ◉ Artisaua

20 urte baino gehiago daramatza panpinak egiten, baina orain besteentzako lan egiteari utzi eta bere ametsa gauzatzeko ordua iritsi dela uste du; txotxongilo konpainia bat muntatu nahi du, herriz herri antzetzten aritzeko.

«Sormen handiko lana da eta oso ondo sentiarazten zaitu»

Olaia Gil Sanchez

Gazte-gaztetatik erakarri zuen antzerkiaren munduak, eta txotxongilo talde bati bere eskuakin bizia eman ondoren, enkarguak bata bestearen atzetik etorri zitzaizkion. Alberto Saavedrak (Gros, 1951) 20 urte baino gehiago daramatza, museo, ekitaldi eta apainketetarako panpinak egiten, baina, orain, bere ametsa gauzatzeko ordua iritsi dela uste du. Txotxongilo konpainia bat muntatu eta herriz herri emanaldiak egiten aritu nahi du. «Ezin dut askoz gehiago itxaron, handitxo naiz-eta», azaldu dio Iru-txuloko Hitzari. Martutunen lokal berri batekin egin da eta bertan ilusioz jositako bere egitasmoaren habia finkatu du. **Zure lokal berria ikaragarria da. Zer egin nahi duzu hemen?** Nire txotxongilo konpainiako proiektuak martxan jarriko ditut. Entsegetarako aretotxo bat behar nuen, baita panpinak gordetzeko leku bat ere. Antzezlanak prestatzean lagunak ekarriko ditut, horien gaineko beren iritziak emateko. Ondoren, publikoa dagoen bitartean, txotxongiloekin batetik bestera joango naiz.

Nola ikasi zenuen txotxongilo eta panpinak egiten?

Pixkanaka-pixkanaka leku bateko eta besteko ideiak ateratzen joan nintzen eta teknika berriak ikasten. Leku askotatik edan dut, lanbide guztietan bezalaxe, eta gaurkoa ikasten jarraitzen dudana eguna da.

Erromatarretatik estralurtarretara egin dituzu. Nondik atera dituzu ideiak?

Hein batean nahiko erraza da, gehienak enkarguak baitira. Adibidez, duela gutxi Sarako kobazuloetarako 15 lagun egin nituen: sua egiten, elkarri ipuinak kontatzen... Kobazuloetara joatea oraindik politagoa da, bertan horrelakoekin aurkitzen bazara. Dena den, mota guztietako panpinak egin ditut, eta tamaina

guztietakoak! Duela urte batzuk, tailer txiki bat nuen Iruñean eta bat-batean panpin erraldoiak egiteko eskaera pila bat iritsi zitzaizkidan: Dinosaurioak, Planetariumerako planetak... azkenean lantokiz aldatu behar izan nuen!

Bildumaren bat bereziki gogorazten duzu?

Asko eta asko. *Jende arrunta* izeneko 30 panpineko talde ba-

tekin Europan barrera bidaia-tzen aritu nintzen zortzi urtez. Izenburuak dioen bezala jende arrunta ziren -aguretxoak, haurrak...-, baina arrakasta handia izan zuten. Bidaiatzeaz nekatu nintzenez guztiak saldu nituen eta orain Ibizan daude, munduko diskoteka handiengan, jendeari begira. Maitagarriak ziren...

Egia esan, lan honetan azkenean panpin guztiak gustatzen zaizkizu. Orduak ematen dituzu

eurak besarkatzen eta laztantzen: maite dituzu ala gorroto dituzu.

Oraintsu, Gipuzkoa plazako jaiotzako panpinak prestatu dituzu.

Zehazki, 20 pertsonaientzako esku eta buruak egiten ibili naiz. Pieza guztiak berdinak dira eta ondoren elkarte belenista da buruei ilea eta bizarra jartzeaz eta panpinak jantzi eta atontzeaz arduratzen dena. Duela urte batzuk beste panpin batzuk zituzten, baina eurek bertan 'behi eroak' deitzen zieten, borondate guztiarekin egin zituzten arren, itxura beldugarria baitzuten; begi bakoitza alde baterantz, etabar. Egun batean, guztia berri-zeru animatu ziren eta bizpahiru urtetan goitik behera aldatu genuen. Nik neuk 120 panpin egin nituen guztira, baina, egun,

«Nire panpin talde bat Ibizan dago, munduko diskoteka handiengan, jendeari begira»

«Hontaz bizi garen bizpahiru lagunak pribilegiatu batzuk garelako sentitzen dut»

